

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Zerga-bilketa. 2025eko egutegi fiskala

Alkatetzaren 2024ko azaroaren 21eko 2505 zk.ko Dekretuaren bidez, honako hau erabaki da:

Lehen. 2025 ekitaldiko Egutegi Fiskala onartzea.

1.1. 2025 ekitaldiko Egutegi Fiskalean aldiroko zergak ordaintzeko borondatezko epeak ezartzen dira. Epeak adierazitako egunean bukatuko dira; baina azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera pasatuko da.

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

Recaudación. Calendario fiscal año 2025

Por Decreto de Alcaldía n.º 2505 de 21 de noviembre de 2024 se ha resuelto:

Primero. Aprobar el Calendario Fiscal de los Tributos del ejercicio 2025.

1.1. En el Calendario Fiscal de los Tributos del ejercicio de 2025 se establecen los períodos voluntarios de pago de los Tributos periódicos. Los períodos finalizarán el día señalado, o siendo este sábado o inhábil, el inmediato hábil posterior.

	<i>Borondatezko ordainaldia</i>	<i>Helbideratutako ordainagiriaren kobrantza-eguna</i>
URTEAN BEHIN ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK		
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ)	2025.03.03 - 2025.05.09	Borondatezko epearen azken eguna
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)	2025.05.15 - 2025.07.01	Borondatezko epearen azken eguna
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)	2025.10.01 - 2025.11.10	Borondatezko epearen azken eguna
Hilerria mantentzeko zerbitzuaren tasa	2025.10.01 - 2025.12.10	Borondatezko epearen azken eguna
Tasak, ibilgailuak finken barrura sartzeagatik eta horiek aparkatzeko herri-bidean erreserbak egiteagatik	2025.10.01 - 2025.12.10	Borondatezko epearen azken eguna
Administrazio-emakidak	2025.10.01 - 2025.12.10	Borondatezko epearen azken eguna
Merkataritza okupazioa	2025.10.01 - 2025.12.10	Borondatezko epearen azken eguna
SEI HILABETEAN BEHIN ORDAINDU BEHARREKO TASAK		
Hileko ferian salmenta-postuak jartzeagatik: 1. seihilekoa	2025.01.10 - 2025.03.10	Borondatezko epearen azken eguna
Hileko ferian salmenta-postuak jartzeagatik: 2. seihilekoa	2025.06.06 - 2025.08.08	Borondatezko epearen azken eguna
Mahaiak, aulkiak, beladoreak eta antzeko beste elementuak jartzeagatik: 1. denboraldia	2025.05.02 - 2025.07.10	Borondatezko epearen azken eguna
Mahaiak, aulkiak, beladoreak eta antzeko beste elementuak jartzeagatik: 2. denboraldia	2025.11.03 - 2026.01.09	Borondatezko epearen azken eguna
HILERO ORDAINDU BEHARREKO TASAK	Hilabeteko epea, hurrengo hileko 15etik aurrera	Borondatezko epearen azken eguna

	<i>Períodos voluntarios de pago</i>	<i>Cobro de recibos domiciliados</i>
TRIBUTOS DE PERIODICIDAD ANUAL		
Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM)	03.03.2025 - 09.05.2025	Último día del período voluntario
Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)	15.05.2025 - 01-07-2025	Último día del período voluntario
Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE)	01.10.2025 - 10.11.2025	Último día del período voluntario
Tasa por el servicio de mantenimiento del cementerio	01.10.2025 - 10.12.2025	Último día del período voluntario
Tasas por entradas de vehículos al interior de las fincas y reservas de vía pública para aparcamiento exclusivo	01.10.2025 - 10.12.2025	Último día del período voluntario
Concesiones administrativas	01.10.2025 - 10.12.2025	Último día del período voluntario
Mercantil	01.10.2025 - 10.12.2025	Último día del período voluntario

	Períodos voluntarios de pago	Cobro de recibos domiciliados
TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL		
Tasa por la instalación de puestos de Feria mensual: 1.º sem.	10.01.2025 - 10.03.2025	Último día del período voluntario
Tasa por la instalación de puestos de Feria mensual: 2.º sem.	06.06.2025 - 08.08.2025	Último día del período voluntario
Tasa por ocupación de vía pública con mesas, sillas y veladores. Temporada 1	02.05.2025 - 10.07.2025	Último día del período voluntario
Tasa por ocupación de vía pública con mesas, sillas y veladores. Temporada 2	03.11.2025 - 09.01.2026	Último día del período voluntario
TRIBUTOS DE PERIODICIDAD MENSUAL	Un mes a partir del día 15 del mes siguiente	Último día del período voluntario

1.2. Alkatetzak onartuko ditu aurreko puntuan adierazita-ko ordainketa-epeetan egiten diren aldaketak, eta egutegi fiskal hau bezala argitaratuko dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-taulan.

Bigarrena. Alkateak onartuko ditu errolda fiskalak, eta udal bulegoetan ikusgai egongo dira kobrantza-aldi bakoitzean. Zergadunek aukera izango dute horiek aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko.

Errolda fiskaleko datuei buruzko informazioa zergapekoari edo behar bezala egiaztatutako ordezkariari bakarrik emango zaio; informazio hori eskuratzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa bete beharko da.

Kuotak eta gainerako zerga-elementuak kolektiboki jakinaraziko dira, baldin eta erregistroko alta berriak ez badira eta dagoeneko zerga-gaia subjektu pasiboari banaka jakinarazitakoa bada, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorren 89.3. artikularen arabera.

Hirugarrena. Egutegi fiskal hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, kobrantza-iragarkiaren funtzioa betetzearen ondorioetarako (abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua onartzen duenak, 18. artikuluan aurre-ikusten duen moduan).

Ondorio horietarako, hauxe adierazten da:

a) **Ordainketa egiteko epeak:** Egutegi fiskal honetan adierazitakoak, edo, hala badagokio, Alkatetzak aldatzen dituenak.

b) **Kobrantza modalitatea:** Helbideratutako ordainagiriak zuzenean kobratuko dira, banketxeetan eta aurrezki kutxetan baimendutako kontuetatik.

Helbideratu gabekoetan, zergadunaren helbide fiskalera bidaliko da zorra ordaintzeko behar den agiria, posta arruntez, informatzeko.

Zergadunak agiri hori jasotzen ez badu, berak edo ordainketa egin behar duten beste pertsona batek agiria eskatuko du borondatezko epean, Herritarren Arreta Zerbitzuan (Kale Nagusia 29 behea), jendaurreko ordutegian.

c) **Ordainketa egiteko tokiak, egunak eta orduak:**

– Herritarren Arreta Zerbitzuan (Kale Nagusia 29 behea), 7:30-15:00 bitartean eta, ostegunetan, arratsalde, 17:00-19:00 bitartean (uztaila, abuztua eta jai bezperetan izan ezik).

– Banketxe kolaboratzaile hauen edozein bulegotan edo kutxazain automatikotan: Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, Banco Sabadell, Caixabank, Abanca, Santander, Bankinter eta Caja Rural de Navarra dagokion ordainketa-agiria aurkeztuta.

1.2. Las posibles variaciones en los plazos de ingreso señalados en el punto anterior serán aprobadas por la Alcaldía y publicadas al igual que este calendario fiscal: BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y Tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo. Los padrones fiscales, que se someterán a la aprobación de Alcaldía, se expondrán al público en las oficinas municipales durante los respectivos periodos de cobro, a efectos de que los contribuyentes puedan examinarlos y presentar, en su caso, las reclamaciones oportunas.

La información relativa a los datos de los padrones fiscales solo se facilitará al obligado tributario o a su representante, debidamente acreditado; el acceso a dicha información se realizará de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Las cuotas y demás elementos tributarios, en cuanto no constituyan altas en los respectivos registros, sino que hacen referencia a un hecho imponible ya notificado individualmente al sujeto pasivo, serán notificados colectivamente, al amparo de lo que establece el artículo 98.3 de la Norma Foral General Tributaria 2/2005 de 8 de marzo.

Tercero. Este Calendario Fiscal se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de cumplir la función de anuncio de cobranza previsto en el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

A tales efectos se expresa lo siguiente:

a) **Plazos de ingreso:** Los plazos de ingreso son los que figuran en el presente calendario fiscal o los que, en su caso, sean modificados por la Alcaldía.

b) **Modalidad de cobro:** Los recibos domiciliados se cargarán directamente en las cuentas autorizadas de Bancos y Cajas de Ahorro.

Para los no domiciliados, el documento preciso para efectuar el pago de la deuda será enviado, con carácter informativo, por correo ordinario al domicilio fiscal de los obligados al pago.

Cuando no se dispusiere del referido documento, la persona obligada al pago u otra persona que pretenda realizar el pago lo solicitará, dentro del periodo voluntario, en el SAC (Servicio de Atención al Ciudadano) sito en Kale Nagusia 29 bajo, en horas de atención al público.

c) **Lugares para efectuar el pago, días y horarios:**

– En el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento sito en Kale Nagusia 29 bajo, de lunes a viernes de 7:30 a 15:00 horas, y los jueves a la tarde de 17:00-19:00 horas (excepto julio, agosto, y vísperas de festivos).

– En las oficinas y cajeros automáticos de cualquiera de las siguientes entidades colaboradoras: Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, Banco Sabadell, Caixabank, Abanca, Santander, Bankinter y Caja Rural de Navarra, presentando el documento de pago correspondiente.

Banketxe kolaboratzaile horientzat lanegun diren guztietan onartuko dituzte diru-sarrera horiek, kutxa orduetan.

– Udalaren web-orriaren bidez: www.zarautz.eus (nire ordainketa eta zerbitzu telematikoak) eta beste web-orri batzuetan, adibidez, Jaurlaritzakoan (www.euskadi.eus/nireordainketa).

d) *Banku helbideratzea*: Hau izango da ordainagiriak ordaintzeko banku-helbideratzeak kobrantza-aldian eragina izateko muga: kobrantza-aldiaren hasierako egunaren aurreko hilaren 15a, salbu Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan. Horien muga eguna Gipuzkoako Foru Aldundiak berariaz jarritakoa izango da.

e) Ordaintzeko epea igarotzen bada ordainketa egin gabe, zorrak premiamendu-prozeduraz exijituko dira, eta epe exekuti-boari dagozkion errekaruak, berandutze-interesak eta, hala badagokio, sortzen diren kostuak ere ordaindu beharko dira.

Zerga hauen aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko egin-tzak berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, horiek eman zituen organoaren aurrean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorren kasuan, berraztertze-errekurtsoa borondatezko ordainketa-epean edo hori amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean jarri ahal izango da.

Hau adierazten da, ebazpen honen hirugarren atalean xedatutakoaren ondorioetarako.

Zarautz, 2024ko azaroaren 21a.—Alkatea. (8498)

Estas entidades colaboradoras admitirán dichos ingresos todos los días que sean laborables para las mismas durante las horas de caja.

– A través de la página web municipal www.zarautz.eus (Mi-Pago y Servicios telemáticos) y otras webs como la de Gobierno Vasco www.euskadi.eus/mipago.

d) *Domiciliación bancaria*: La fecha límite para que la domiciliación bancaria de pago de recibos surta efectos en dicho periodo de cobro será la del día 15 del mes inmediatamente anterior al inicio del citado periodo, salvo en el caso del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y el Impuesto sobre Actividades Económicas, cuya fecha límite será la que fije a tales efectos la Diputación Foral de Gipuzkoa.

e) Transcurridos los plazos señalados como períodos voluntarios de pago, sin haberse efectuado el mismo, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y devengarán los correspondientes recargos del periodo ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

Contra los actos sobre la aplicación y efectividad de estos tributos podrá formularse, ante el mismo órgano que los dictó, el correspondiente recurso de reposición previo al contencioso-administrativo; tratándose de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, el recurso podrá interponerse durante el periodo voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquél.

Lo que se hace público a los efectos de lo previsto en el punto 3.º de esta resolución.

Zarautz, a 21 de noviembre de 2024.—El alcalde. (8498)